

LATIN ZAHARRETIK EUSKARA ZAHARRAGORA

Zabar hitzak, hemen, estimagarri, beneragarri eta prestigiodun zerbait adierazten duela dirudi, eta ez zaharkitua edo baztergarria den zerbait. Latinaren kasuan, zenbaiten iritziz, zaharkitua izan daiteke, baina inola ere ez prestigiorik gabea. Guretzat, ordea, euskara da batez ere estimagarria, egunero erabilia eta prestigiodun bihurtu nahi genukeena. Oraindik, XXI. mendearen lehen hamarkada osatuz doanean, eginkizun eta gauzatu gabeko amets dira hizkuntza zahar maitearen inguruko hainbat jomuga. Neure buruari kopiaturik (*Nire Sasoiko Markina-Xemein*), hau esango nuke orain ere: “Amets bat darabilgu barruan: euskaldun oso izatea; euskara geure-geurea egitea. Ez amets erraza, baina bai polita”.

Oraingoan, baina, lehenagoko egoera eta kezkei begira gogoetatxo bat egin nahi nuke, latina eta herri-hizkuntzekin zeri-kusia duena. Hirurogeiko hamarkadara arte, latina izan zen eliz hizkuntza nagusia eta, herriari eginiko prediku, katekesi eta zenbait kantutan izan ezik, latina entzuten zen gure elizetan. Haiek garai horretara arte latin zekitela esan dezakegu. Dena dela, aldaketa-haizeak sumatzen ziren gizartean eta Elizan.

Gizartean aspaldiko nahia genuen. Elizak Vatikanoko II. Kontzilioan emango zuen urrats hori. Gaur arte bide luzea egin da eta beti horrela izan balitz bezala ikusten dugu herri-hizkuntzen erabilera liturgian. Herritar eta eliztar soilak ez du

izango, hori horrela izan dadin, Vatikanoko II. Kontzilioan izan ziren eztabaida eta atzera-aurrera zailen berri. Baina hala izan zen: Kontzilioko partaideen artean indarrak paretsu ziren alde batetik eta bestetik eta sokatira latza izan zen han... Kosta ahalakosta latin zaharrari bere hartan eutsi nahi ziotenak zeuden alde batean eta herri-hizkuntzen aldekoak bestean. Tradiziori, ohitura finkoei loturik egotea zen batzuen ezaugarria; korronte, joera eta haize berriei, gizarteko gorabeherei gehiago erreparatzea, berriz, besteena.

Kontzilioko partaideen berezko izaera, pentsaera, unean uneko egoera psikologikoa islatuko zen eztabaida horietan, baina baita haragoko zerbait ere. Urratsa eman ondorengo ikuspegia ere, lauso artean bada ere, izango zuten irudimenean, horrek ekar zitzakeen arrisku, aldaketa eta ondorezarenkin. Hori guztia aurreikus zitekeen eztabaida haietan. Hau da, azaletik, batez ere eliz giroan, urak nahiko bare zeudela zirudien arren, bada eta azpi-korronte indartsuek hartu zuten inguru honetako itsasoa. Eta azaleratu ere txitean-pitean azalera-tzen ziren. Gizarteko aniztasunak eraginiko kontraesan eta tirabira asko eta askotarikoak.

Eztabaida haietako latinezko akten puska batzuk euskarara itzultzea egokitu zait orain dela gutxi, liturgian latinaren eta herri-hizkuntzen erabilerari dagozkionak hain zuzen ere. Badakit eztabaida haiek hotz gertatuko zaizkiona egungo gizarteari; bestelako interesak izanik, haien beroa gizarte honi sentiaraztea ia ezinezkoa dela, baina baita badakit Kontzilio hark eragin handia izan zuela ondorengo urteetan, eliz giroan batez ere baina baita gizarte giroan ere. Hori dela eta, ekarri nahi izan ditut *Karmel* aldizkariaren orrietara orduko zenbait eszena.

Eztabaida haietako zenbait testu puska

Julio Doepfner Munich eta Freising-eko kardinalaren, Valeriano Gracias Bonbaiko kardinalaren eta Antonio Bacci kardi-

nalaren iritziak hautatu ditut. Hona hemen Doepner kardinal alemaniarrek agerturiko ataltxoak:

Bereziki gogoan izatea merezi dute, bizkuntza liturgikoaz gure eskeman, batez ere 24. zenbakian (167. or.), xedatzen direnek. Kontu handiz joka bedi egunetik egunera urgenteago diren arazoan konponbiderako. Igaro diren urteetan Berlingo Elizaren apezpiku zereginean nengoela esperientziaz ezagutu dudanez, sarri-sarri, lurralde ateoan Elizaren aurkakoen eta etsaien artean bizi diren fededunentzat, Liturgia santua da erlijio-bizitzaren eta katekesi-irakaspenaren iturri garrantzitsuenak, are gehiago, batzuetan ia bakarra eta fededunek elkarrekin otoitz egiteko duten abagune bakarra. Han, hainbat kasutan, ez dute balio monitoreek eta meza-liburuek, baizik eta beharrezko da liturgiaren egitura bera argia, sinplea izatea, eta ospakizunen buru direnek bere herri-bizkuntza erabili ahal izatea hala komeni den tokietan. Baina gainerako herrialdeetan, bizitza espiritualak, batez ere liturgian parte-hartze emankor eta biziaren araberakoa da. Horregatik, biziki pozgarriak dira gai honetan erabakitzen direnak... eta erabaki hauen azpian den printzipioa, hau da: gorde bedi latin bizkuntzaren erabilera, jadanik entzunak ditugun hainbat abantailarengatik; hala ere onar bedi herri-bizkuntza, arimen onak edo herriaren parte-hartze aktiboak hala eska dezateanean.

Valeriano Gracias kardinalak, Indiako esperientzia zabala gogoan harturik, hitzaldi luze samarra egin zuen, hainbat puntu interesgarri ukitutuz:

Liturgian latina erabili behar delako iritziari zenbaitek etengabe eta sendo eutsi ziotela egia izanik, oso atsegingarri da irakurtzea 24. zenbakian, Konstituzioak uste duela “toki zabalagoa eskaini behar zaiola Liturgian herri-bizkuntzari”, Gotzain Batzarrari utzirik “herri-bizkuntzak Liturgian onartzeko mugak eta modua Aulki Santuari proposatzearen egitekoa”. Eta hala ere azpiko 46. oharrean “Akta eta dokumentuei” (II. Libururikiko 391. orrialdetik 428.era) egindako erreferentzian argi ikusten da, Gotzain Batzarrei zabaltasun

handia ematen zaiela Liturgia kultura eta tradizioei egokiturik garatzeko.

Eta esan dut oso pozik nagoela eskema honekin, baina hau gehitu beharra dut: egiaz uste dut, herriaren irakaspena belburu duten Mezaren zati haietarako beharrezkoa denean soilik onartu behar dela herri-bizkuntza. Hori aurreikusia dago 41. zenbakian, 91.ean eta 97.ean (art.); horietan hitz egiten da Liturgian erabil daitezkeen herri-bizkuntzaz, herri-kan-tuaz, musika-tresna autoktonoez.

Jadanik urte askoan dugu Ekialdeko Indietan –ez Aulki Santuaren baimenaz soilik, baita haren bultzadaz ere– zenbait erritual herri-bizkuntzetan, Indiako bizkuntza nagusietan (ofizialki 14 dira). Bitarteko hauekin zenbait sakramentu eman genitzake eta zenbait zeremonia burutu oso-osorik herri-bizkuntzan, latin bizkuntza erabiltzea komeni den sakramentu-forma eta oliaduretan izan ezik. Eta hau, beti ere, fededunek zeremonietan parte-hartze bizia izan dezaten. Gure esperientziak erakusten du, ez bakarrik fededunak ongi irakatsiak direla era horretara, baizik eta zeremonia horietara maiz etortzen diren katoliko ez diren adiskideek ere parte har dezaketela haietan modu ulergarrian. Eta hau batez ere bai en erlijioetan ministroek esaten duten ezer ulertzen ez dutelako, Hinduisten artean, adibidez, bilik den sanskrito bizkuntza erabiltzen baita; Zaratustraren jarraitzaileen artean, hau da, Parsien artean, bilik den Avesta-Pahlavi bizkuntza. Haien artean, erlijio-kontzeptu hau dago: zeremoniak zenbat eta misteriotsuagoak eta ulergaitzagoak izan, hainbat bizikiago sumatzen dute Jainko ezezagunaren maiestatea. Katoliko garenon artean, ikasien artean behintzat, argi dago, ez dugu nahi halako izaerak nagusitzea.

Beraz, erritualetan herri-bizkuntza onartzean Aulki Santuaren asmoa fededunen irakaspena baldin bada, hortik ulertzen da Aulki Santuak herri-bizkuntza onartzea komeni dela, fededunei irakasteko diren Mezako sakrifizioaren egituraren zati baita behintzat. Gai honetan, guk artzainok, liturgista ez ga-

renok, argumentu historikoak barik erabat pastoralak erabiltzen ditugu.

Norbaitzuek ibardets dezakete, hau erraz lortu abal dela fededunek herri-bizkuntzazko meza-liburuak erabilita. Eta nik horri hau erantzuten diot:

a) gure herrialdeetan, batez ere, fededunik gehienak anal-fabetoak dira;

b) fededunak alfabetatuak izan arren, nabiago dute entzutea irakurtzea baino; eta hori oraingo belaunaldien pentsaeragatik da, hainbat lekutan, bai Misioetako lurraldean eta bai Mendebaldean ikusi izan dudanez. Era berean, atzo Léger kardinal agurgarriak egun deskristauturik dagoen Mendebaldeaz geginiko oharpenak, oso egokiak iruditzen zaizkit.

Eta gainera, Liturgian latin bizkuntza baizik nabi ez duten bizlarien informaziorako esango dut, mundua Mendebaldez eta Ekialdez osatzen dela; eta Pio XII.a gogoangarriak esan zuenez, “Eliza unibertsala ez da Mendebaldekoa, ezta Ekialdekoa ere, bietakoa baizik”. Horregatik, sesio honetako ondorioei dagokienez, arretaz egon behar dugu, batez ere Mendebaldean indarrean dauden baldintzei begira daudenak izan ez daitezen...

Hau esaten da: herri-bizkuntza onartzen baldin bada, nahaste-borrastea gertatuko da herri-bizkuntzen kopuru handiagatik. Ez gara ari Misio-lurraldeetan eta Europan ugari diren dialektoez. Baina herri-bizkuntza benetakoak, beren literatura klasikoarekin, gutxi dira; esaterako, 438 milioi biztanle diren Ekialdeko Indietan, ia hogeit hamar herri-bizkuntza dira, gutxi gorabehera Europa osoan diren kopuru bera; gutxi gorabehera, gure lurraldeko probintzia zibil bakoitza Europako nazio bakoitza bezalakoa da. Beraz, Europako herrialdeetan herri-bizkuntza erabiltzea nabi bada, era berean nabi izan daiteke herri-bizkuntza erabiltzea edozein kontinentetako hainbat herrialdeetan...

Beraz, era honetara baimenak ematen dituzten printzipio orokorrak xedatzea askoz ere hobe da, tantaka-tantaka bai-

men partikularrak eta ugariak ematea baino... Eskemaren aldetik, formula orokorraren jokaera guztiz zentzuzko eta aspaldidanik nahi izan denak, nik uste, pozik utziko ditu Liturgiaren egokitze koherente baten alde lan eskergea egin duten guztiak; eta, bestalde, uste dut behin betiko amaiera emango zaiela gai bonetan izan diren eztabaidei; are gehiago, bidea itxiko zaie norbaitzuengandik datozen aita santuen dokumentuen interpretazio okerrei, orain egunkari katolikoetan seminarioetako irakasle diren zenbait idazlek egiten dutenez.

Antonio Bacci kardinala latin zale sutua eta hizkuntza honetan oso jantzia zen eta azkenera arte defendatu zuen hizkuntza honen erabilera liturgian. Honen argudio nagusia, egin-eginean ere lortu nahi zenaren aurkako ondorioa izango genukeela latina ez den hizkuntzak liturgian erabilia:

Ez uste izan ni, latina lantzen dudana naizenez, Liturgiako erritu guztietan latinaren defendatzaile amorratua eta neurritz kanpoko naizenik. Inola ere ez; bihotzez irekia nago gure garaietako premiak ulertu abal izateko. Abal dudanik eta laburren agertuko dizuet neure iritzia gai bonetaz.

1. Meza ematerakoan, nire iritziz, ez dira sartu behar herri-bizkuntzak, bai horrek arrisku eta kalte larria ekar dezakeelako, bai guztiok lortu nahi dugun hori bera, hau da, Eukaristiako sakrifizioan herriaren parte-hartze handiagoa, eta apai-zak irakurtzen dituen gauza haiek entzuleek hobeki ulertzea, beste era egokiago batez, beste era egokiago batez diot, lortu daitekeelako.

Antonio Rosmini jaun argiak "Le cinque piaghe della Chiesa" (Elizaren bost izurriak) deritzon liburuxkan esan zuen, meza-emailearen eta herriaren arteko diafragma dela latina; baina liburuxka dagoeneko gaitzetsia izan da Elizaren aldetik. Eta hala ere ez bakarrik Trentoko Kontzilioak (XXII. bilk., 8. kap., 9. kan.), baita Aita Santuek ere berretsi zuten, Mendebaldeko Elizan latinez eman behar dela Meza, beti ere Ekialdeko Elizaren bizkuntza liturgikoak salbuespen direla... Aski izan bedi gogoratzea Pio XII.aren Gutun Entziklikak Liturgia

santuaz; eta baita oraintsu-oraintsuko Veterum Sapientia Konstituzio Apostolikoa ere, agintean den Aita Santuarena.

2. *Bestalde, latinaren orde, zati batean nabiz osoan, herri-bizkuntzak ezarriz ezin dugula lortu bainbatek jomugatzat duten bura, erraz froga daiteke; ez da lortzen nabi den bura.*

Izan ere, herri-bizkuntzan irakurrita soil-soilik, herriak gutxi edo ezer ere ez du ulertzen, batez ere gai zailak direnean, esaterako, Hebertarrei eginiko Epistola, Itun Zabarreko irakurgaiak, Apokalipsia etab.; are gehiago, zenbait kasutan, gaztetxoei batez ere, zalantzak eta nabasmendua sor dakizkieke, esaterako, Susana neskatila garbiarekin bildu nabi izan zuten agure lizunen kontaketa irakurgaietan, eta “Ezker besoaz dit lepotik heltzen eta eskuinekoaz nau besarkatzen” esaldian (Kt. 2,6; 8,3). Hauek, bada, azalpen egokia behar dute, ez bakarrik itzulpen soilak.

3. *Beraz, nola ken dezakegu benetan dagoen diafragma hau eta helburu goresgarri hau lortu? Herri-bizkuntzan eginko homiliaren bidez, herriari emaniko katekesiaren bidez, hori guztia behar bezala azalduz eta herriak ulertzeko eran egokituz. Hori, gainera, Aita Santuek berretsi zuten jadanik eta behin eta berriro abolkatu zuten. Herri-bizkuntzetara eginiko Eskritura Santuaren itzulpen soilak, bestalde, gutxi balio du herriak ulertzeko eta haren debozioaren alde egiteko. Arrazoi bauxe dela eta, Eskritura Santuaren itzulpenak, beharrezko oharrik gabe, herriarentzat behintzat, ez ditu ontzat jotzen Elizak.*

Gaur egun, gainera, Meza-liburua erabilgarri dago herri-bizkuntzetara itzulita. Eta era berean, oraindik goresgarriago dena, toki askotan egiten da, apaizak Meza latinez ematen duen bitartean, monitore trebe batek (ingelesez “speaker” deritzonak) erritu santuaren hitzak herri-bizkuntzan esaten ditu, herriaren ulermenera eraturiko ohar egokiekin.

Ez da inola ere beharrezko herri-bizkuntzak Mezaren ospakizunean sartzea; horrek, gainera, berehala adieraziko dudanez, kalte oso larria ekar dezake.

4. *Eta lortu nabi denari dagokionez, hau da, herriak hobea ulertzea, parte-bartze handiagoa, horrela ez bakarrik ezin dugu lortu, baizik eta arrisku, diskriminazio eta baserrera-ko bide ere izango da hizkuntza bat baino gehiago diren hainbat lekutan.*

Latinez izan ezik beste zein hizkuntzatan emango da Meza, adibidez, Alto Adige-n edo Hego Tirolen? Zein hizkuntzatan, hiru erabiltzen diren Suitzako zenbait biritan? Zein hizkuntzatan, Kanadan, ingelesa eta frantsesa erabiltzen baitira? Zeinetan, Belgika nazioko aldeetan, bi hizkuntza erabiltzen baitira maila berdintsuan? Etab.

Arrazoi honetatik abiatutik, beldur izatekoa da ez ote diren aldarera eramango nazionalismoa eta beraren gatazkak eta ez ote diren zuzenduko Eukaristiako sakrifizioaren aurka, eta hau oso kaltegarria dela ikusten ez duenik ez dago; aitzitik, latinak, aita santuek baieztatzen dutenez, batasunaren lotura izan behar du; eta, goian esan dudanez, zuzen eta egoki azaltzen bada homilien eta katekesiaren bidez –komeni denez eta... aita santuek agindu zuten– herriak ulertu ahal izango ditu erritu sakratuak.

Zuengana jotzen dut, bada, Guraso agurgarriok, hain garrantzitsua den arazo hau arretaz gogora dezazuen, Elizaren batasunari kalterik sor ez dakion.

5. *Arazoa beste era batera hartu behar da, Sakramentuez eta Sakramentalez ari garenean. Izan ere, Mezaren jendaurreko ospakizuna herriaren eta meza-emailearen artean burutzen den bitartean, aitzitik beste hainbat sakramenturen ekin-tza apaizaren eta fededun bakarraren artean burutzen da (Aitortzako sakramentuan, esaterako), edota apaizaren eta fededun gutxi batzuen, gebienetan hizkuntza berekoen, artean, esaterako Bataioan, Sendotzan, gaixoen Oliaduran, Ezkontzan eta Sakramentalean.*

Bestalde, zenbait Sakramentu ematean eta errituan, esan nuenez, herri-hizkuntzak sar daitezke, Aulki Santuak baime-na emanik. Hori jadanik idatzi zuen, orokorki, Pio XII.ak Li-

turgia santuari buruzko Gutun Entzikliketan (A.A.S., 39. lib., 545. or.).

6. Hala ere, nik uste dut, arazo larri hau ez litzatekeela utzi behar herrialde berezietako Gotzain Batzarren esku (1. kap., 24. z.), baizik eta era bateratuan arautu beharko lukeela Aulki Apostolikoak Eliza osorako.

Izan ere, arazoa Gotzain Batzarren ekimen eta eskarien mende uzten baldin bada, herrialde batetik bestera desberdintasun handiak izango lirateke, batasunaren kaltetan eta, agian, Babelako nabasmenduarekin; horregatik, hori, kaltegarri izango da, gaur egun ez katoliko laikoak soilik, baita apaizak ere herrialde batetik bestera, nazio batetik bestera, erraz joaten direnean.

Hauek izan dira, Guraso agurgarriok, zuen hausnarketa eta zuburtasunari proposatzeko izan ditudanak. Hemen, nire iritziz, aldatu behar diren formulak sartzen dira...

Euskararen sarrera eta erabilera liturgian

Latin zaharraren ordeztu gure elizetan euskara entzuteko gogo bizia sortu zen. Eskura dut, esaterako, Vatikanoko II. Kontzilioa baino urte batzuk lehenago, 1959an, Arrazolan ospatu zen euskarazko lehen meza zela-eta, une hartan hango apaiz zen Jose Antonio Retolazak idatzi zuena. Herria euskara hutsean bizi zela diosku eta euskara ingurumari osoan zegoela, elizan izan ezik. Hona idazki haretako pasarte bat:

Arrazolan euskerea ingurugiroan zan. Arrazolan euskerea arnasaz batera irunsten zan. Han, hor, hemen... danean, euskeraz. Harek, horrek, honek... guztiak, euskeraz. Txoriak txorrotxio, zapoak klinklon, kanpaiak dilindolon... euskeraz. Arrazolako toki baten, horregatino, erderaz egiten zan: eleizan, abadeak Mezatan "Dominus voviscum" eta, esaten ebanean. Konpondu beharra zan oker hori.

Vatikanoko II. Kontzilioaren euskarazko edizioan, Liturgia Santuaren Konstituzioaren sarreran, liturgia eraberritzeko hainbat tokitan eginiko ahaleginak azpimarratzen dira. Guri dago-kigunez, besteak beste, hau dio:

“Euskal Herrian ere sumatzen zen nolabaiteko mugimendu liturgikoa. Kristau-komunitateak biziki sentitzen zuen elizkizunetan herri-hizkuntza erabiltzeko irrika eta horren adierazgarri da Arrazolan 1959ko ekainaren 21ean euskaraz eman zen lehen meza”¹.

Euskarazko testuak, liturgiarako kantuak etab. prestatzeko aurrez lan handia egin zegoen. Itzulpen berri osoagoak egiten ziren bitartean, tresna egoki gertatu ziren lehenagotik eginak zeuden meza-liburuak. “Orixeren *Urte Guziko Meza-Bezperak* (1950) eta J. Kerexetaren eta S. Onaindiaren *Eguneroko Meza* (1960) liburuak herriarengana hurbildu zituzten liturgiako testuak”. Izan ere, gure kultura eta euskara maite zituztenek, herri-hizkuntzak elizan erabiltzeko atea Erroman irekitzen zenerako prest egon nahi zuten, materialik behinenak euskarara itzulirik esku artean izateko. Urte haietan, Francoren diktadurapean geunden eta, gure elizbarrutietako gotzainekiko mesfidantza handia sumatzen zen kristau euskaltzaleen artean. Herri-hizkuntza bai, baina zein herri-hizkuntza? Gaztelaniak eta frantse-sak erraz egingo zuten elizarako bidea, baina gureak –euskarak– izango ote zuen tokirik...? Arrangura hori zuten batez ere erdara nagusi zen hiri handietan bizi ziren euskaldun kristauak eta apaiz eta erlijioso ez gutxik. Behin gaztelania hutsari ateak irekiz gero, ondoren zetorkeen euskara berandu helduko zen beldur ziren. Ni neu ere horretan nengoen eta hala agertzen dut *Nire Sasoiko Markina-Xemein* liburuan:

“Bilboko euskaldunak, Gotzainaren borondaterik ezagaitik edo, ez eben halako zoririk izan. Euskera nekez eta ia tantaka sartuko zan Bilbo hiribilduko eta inguruko parroketan. Kristinau eta abade euskaltzaleen eraginez, kasu batzuetan Gotzai-

¹ *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa*, Bilbao 2003 (56. or.)

nak jakin barik eta haren borondatearen gainetik. Atzeko atetik...? Jose Antonio Retolazak San Antongo euskal mezaren historiaz eta sorreraz idatzi dituanak adierazgarriak dira” (128. or.).

Gaur egun ere, arlo honetan, euskaldun kristau asko kezka agertzen dira, ez baitute berek nahi izango luketen bezain erraz aurkitzen euskarazko liturgiari Euskal Herriko hiriburu eta herri handi samarretan. Horretan men egiten zaio sarritan erosotasunari; eta hori bi aldeetatik etorri ohi da: apaizen aldetik, euskara ez dakiten batzuen presentziak eraginik eta gaztelania guztiek dakitela-eta, ia gaztelania hutsean egiteko edota euskaraz hasierako agurra, kantu eta gauza sinboliko batzuk tartekatuz egiteko tentaldian erortzen direlako. Eta euskaldun kristauen aldetik, euskarazko meza aukeran izanik ere, errazago egiten zaielako edota beste arrazoien bategatik, erdarazkora joatea nahiago izaten dutelako.

“Egun haietan judu jainkozale asko ziren Jerusalem, eguzkiaren azpian diren nazio guztietatik etorriak. Burrunba hura entzutean, hara bildu zen jendea samaldan, eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien” (*Eg 2, 5-7*).

Gaur egun ez da gertatzen lehen Mendekoste eguneko miraririk eta hemen jarraitzen dugu geure kezka, diferentzia eta gabeziekin.

Luis Baraiazarra Txertudi